

URÍLA

Eguzkia: atera 6,10  
sartu 18

2

IGANDEA

Santuak: Modesto, Eleuterio,  
Primo, Zirilo, Teofilo.

1955

Maria ta Luix'i  
biotz-biotzez.

AE

1926-55.

Gaur Urilaren b̄ia degunez,  
beste urtetako antzera  
nator biotzez zorion-agur  
sendi oñi ematera.

Jaso biotzak eta begira  
eskubi ta ezkerera!

Ara sendia,

Luz ta Maria,

pozez zuekin batera!

Lur-gañeko gauz edereñ arte  
auxe edertasun berbera:

guraso eta seme ar̄teko  
maitasunerko bilera.

Orain dezuten zorion ori  
opa dizutet aurrera.

Sendia... Zenbat biotra asetzen  
itz eder onek; sendia...

Jauna'k Adan ta Eua alkartzean  
jañi lenengo oñaria,  
ta gaurdaño lex giza di-zean  
dan bezela etoñia,  
aurera ere giza dietan  
etengo ez dan aria.

Guizon eta andre, seme ta alaben  
por garbien ituñia;  
izerdi, malko ta naigabeak  
gozatzen ditun zapia;  
bizitran diran bideko ilunak  
uxatzen ditun argia...

Maitasuna da sendia lotzen  
duan urreko katea:  
maitasun-bidez alkartzen dira  
senar eta emaztea;  
maitasunaren igali eder  
beren odol duri semea;  
aitak semea bezela, onek  
gurasoak maitatzea  
ta senideak alkarren arte  
degu sendiko legea.  
Ea maitasuna denez luireko  
usai gozodun lorea,  
bere edertasun ta onoienez  
dago sendia betea.

Jaungoikoaren ur̄en sendia  
du gizonak beařena,  
bai aurtxo txiki ta argal danean,  
bai gazte eder ta lerdena  
ta zartzaroan, sendia beti  
gure babesik onena.

Sendia gorputz eta gogoen  
zaintrale zuzen-zuzena,  
lan-orduetan laguntza leial,  
nekearen atsedena,  
poz-atsegiñen ugarigari,  
txar-aldiko itxaropena.

Sendian jaiio, eta sendian  
eman nai arnas azkena.

Zilar-ertaiak ta beste lau urte  
sendi ori sortu zala.

Aitortu bear det gaurdaño  
zuen lana aundia dala,  
bañan saria ere ara or,  
eta ez sari makala

biran dezuten seikote ori  
edeñago ezin-ala:

talde mardul ta osasuntsua,  
ondo ikasia ta apala

(ez da aĩtzeko ona izatea  
egur onaren expala).

Aurera ere zuen sendia

Jauna'k bedeinka dezala.

Roman





